

UGARTE MUÑOZ, Antón (2024). «Introducción a la Historia del País Vasco, de Bonifacio Echegaray. Estudio y edición», *ASJU* 58 (2), 1-241.

«Vascos, Pueblo de raza desconocida que habla una lengua cuyo origen se ignora». Horrela definitu zuen Jose Antonio Agirre lehendakariak Euskal Herria, bere ibilaldiak kontatu zituen *De Gernika a Nueva York pasando por Berlín* liburu ezagunean. Gaur egun ere, 2025ean, hots, Agirrek bere liburu idatzi zuenetik 85 urtera, euskal historiari buruzko milaka eta milaka orrialde argitaratu diren arren, definizioak ez du aldaketa handirik izan; horren erakusgarri da *Iraganaren lekuko. Euskal Herriaren Historia* (Txalaparta) liburu plazaratu berrian Xabier Irujak aitortzen duena, hain zuzen ere, euskararen eta euskal kulturaren jatorria eta bilakaerak «misterio bat izaten jarraitzen du». Ez da izan, ordea, ahalegin faltarengatik. Iruzkindu behar dugun liburuak, hain zuzen, saio horietako baten berri xehea eta zehatza eskaintzen digu. Bonifacio Echegaray zumaier legelariak, Eusko Ikaskuntzaren aginduz, 1936ko gerra aurretik idazten hasi, baina argitaratuta ikusi ez zuen Euskal Herriaren Historiaren lehen atalen nondik norakoak azaldu dizkigu Anton Ugarte ikerlari bikainak, *ASJU*k txukuntasun osoz plazaratu duen liburukian. Ugarte eskarmentu handiko gizona dugu XX. mendeko euskal kulturaren gorabeherak azaltzen.

Ugarteren lanak formalki bi atal ditu, baina benetan hiru, edo, nahi bada, bost. Lehenik eta behin, Bonifacio Echegarayren biografia laburra eskaini zaigu. Ondoren, gerra aurretik eta, bereziki, gerra ostean, Euskal Herriaren Historia idazteko egindako hainbat ahalegin erakusten dira. Nolabaiteko hiru-garren zatiak hiru azpiatal ditu, eta horietan Echegarayk Euskal Herriaren geografiaren, izenaren eta toponimiaren nondik norakoen eta Historiaurrearen inguruan zuen ezagutza sakona plazaratu zuen.

Ez da hau azken urte hauetan Echegarayren figura aztergai izan duen lan bakarra; izan ere, haren biloba Lazaro Echegarayk euskararen inguruko iritzi, ekintza eta proposamenak bildu berri ditu; eta duela lau urte ere, liburu mardula eskaini zion aitonaren biografiari. Bestalde, 2021ean bertan, Bizkaiko Foru Aldundiak haren euskarazko poema eta ipuinak bildu zituen. Era berean, Zuzenbidearen Euskal Akademiak gauza bera egin zuen Echegarayk euskal zuzenbide pribatuaren inguruan argitaratutakoekin. Hortaz, urte askotako ahanzturaren ondoren, asko jakiteko aukera dugu, zorionez, Bonifacio Echegarayk esandako, idatzitako eta egindakoez.

Zeresan asko ematekoak dira biografiari eskainitako orrialdeak. Errepublikako urteetan euskal autonomia estatutuaren zirriborroa osatzeko lanak baztertu gabe, nire ustez, gerrako egunak eta ostekoak dira interesgarrienak. Echegarayk gatzetako maurismotik abertzaletasun jeltzalerantz egindako

ibilbide zalantzatia eta lehen frankismoan kontrako norabidean egindako urratsak erakusten dizkigu. Horrez gain, gerraren une gogorrean eta errepresio bortitzeko garaietan ere, alde ezberdinetan zeuden pertsonen artean posible izan zela hartu-emanak izatea erakusten du. Esteban Bilbao ministro karlistak Echegarayri emandako babesak da horren lekuko. Ez da liburuaren helburua eta ez naiz luzatuko horretan, baina gutxiegi dakigu erbestera jo, eta babes eta laguntza nahikorik gabe, nola edo ahala aurrera egiteko zailtasunei aurre egin ezinik, Frantziatik edo Amerikatik etxera itzultzea erabaki zutenei buruz. Agiritegiak ondo miatuz gero, agerikoa da erbestealdi «eredugarria» infernu txiki edo handi bilakatu zela hainbat euskaldunentzat. Ezin jakin, esate baterako, Echegarayk Eusko Jaurilaritza estatu-aparatua sortzera eramane zuten gerragaraiko ustezko zentralismoari egindako kritika bere benetako pentsamendutik zetorkion ala Donibane Garaziko bakardadeak eragindako sentimendu mingotsen ondorioa izan zen.

Bigarren atalak bestelako interes historiografikoa dauka. Bertan, Anton Ugartek garai hartan idatzitako Euskal Herriaren hainbat Historia egitasmo edota haien inguruko hausnarketak hartu ditu jomugan: Justo Garaterena, Bernardo Estornesena, Agirre lehendakariarena, Jose Migel Barandiaranena eta Julio Caro Barojarena, besteak beste. Baita bi egitasmo kolektibo ere, *Yakintza* aldizkaria eta gauzatu ez zen Eusko Ikaskuntzaren VII. Kongresua, Zientzia Historikoen ingurukoa, 1936ko irailean Lizarran egin behar zena. Joseba Agirreazkuenagak eta Manu Monterok 1992an izandako eztabaidan gehiegi murgildu gabe, Ugarteren esanetan, ez da zuzena bazterrean uztea 1970eko hamarkadaren aurreko ekarpen ia guztiak. Sentimendu gazi-gozoa sortzen du atalak. Alde batetik, Echegarayren lanaren testuingurua ulertzen laguntzen du, eta agerian uzten du garai hartan, iraganean ez bezala, Euskal Herriaren Historia idatzi nahi zela eta ez lurralde jakin batekoa (Bizkaikoa, Arabakoa...); horretarako zeuden zailtasunak ere azaleratzen dira. 1936ko Eusko Ikaskuntzaren VII. Kongresuan jartzen du itxaropena Ugartek: «hubiese servido para prefigurar una comunidad científica virtual y esbozar líneas de investigación compartidas». Beste alde batetik, ordea, ahalegin horien mugak nabarmendu ditu Ugartek: «visión longue durée, continuum etnológico prehistórico, ausencia de reflexión propiamente historiográfica, tanto metodológica como filosófica. En vano buscaremos en los historiadores vascos del periodo alusiones a la posibilidad de una Historia “total”».

Gehiegi nabarmendu ditu, beharbada, oso zeharka aipatzen direlako euskal historialariek gainditu behar zituzten oztopoak zeregin horretan. Sarri aipatu izan da Unibertsitate publikoaren falta; gutxiagotan, aldiz, ez sortzearen arrazoia guztiz politikoa izan zela eta euskal kultura zein gizartea kaltetzea lortu nahi zela. Baina denok dakigu Letren Fakultaterik gabe ezin zela ikerlari-rik formatu, ezta haiantzako lantoki bat errotu ere. Ez da kasualitatea medikua izatea Justo Garate eta orduko idazle gehienak —Echegaray bera barne— Zuzenbidearen mundukoak edota elizgizonak. Beste lanbide batzuetan ari zirela,

nekez hel zitekeen berrikuntza historiografikoen notizia Historiari errepara-tzen ziotenengana; helduta ere, atzerapen handiarekin sarritan. Gizartearen, ekonomiaren edota kulturaren Historia, ezinbestean, zatika eta motel garatu zen euskal historiografian. Artxibo bateratu baten falta ez ezik, Artxibo Histo-riko Probintzialen falta ere ez da usu aipatu ere egiten; egoera horretan, iker-lariek urrutira joan behar izaten zuten agiri zaharren bila, eta hori ere beste eragozpen bat zen ikerketen garapenerako. Agerian geratzen da erakundetze ahula zuen (duen) euskal inguruan, zer garrantzi zuten Aldundiek, nola ugaritu ziren akademia txikiak (Ugartek ederto aipatzen du *Euskal-Erria* eta *Euskal-erriaren alde* aldizkariaren arteko tirabira), Elizak eta elizgizonek zuten gehie-gizko pisua, eta txokokeria, besteak beste. Testuinguru horretan, erraza da ulertzea zergatik zen nekeza historia konpartitua garatzea (toki gutxitan egin da, bide batez, Historia konpartitu hori, ez behintzat Espainian, Frantzian eta Alemanian), edo Ugartek aipatzen dituen Toynbéek, Spenglerrek edota Blo-chek gurean oihartzun sendorik eduki ez izana. Esan dezadan, aipu horren harira, 1916rako aurki daitekeela Toynbéeren lehen aipamen bat Juan Gutiérrrez Bilbaoren (Baron Von Goltz ezizena erabili zuen) kazetari lan batean, *Euzkadi* egunkarian. Jon Bilbao, Madrilako Letren Fakultatean ikasitako eus-kal historialari bakarrenetakoa garai hartan, Toynbéeren irakurle izan zen, ge-rra ondoren, behinik behin. Edozein modutan, pentsatu nahi dut Anton Ugar-tek oso beharrezkoa dugun ikerketa bide berri bat iragartzen digula, aipatu dudun 1992ko eztabaida hartatik gaurdaino hausnarketa eta azterketa gutxi idatzi direlako euskal historiografiaren inguruan. Ez dago zalantzarik, Ugarte oso ikerlari egokia da eginkizun horretarako; Bonifacio Echegarayren biblio-grafiaren bilketa-lana horren lekuko.

Liburuaren hirugarren atala Bonifacio Echegarayk berak idatzitako haus-narketek eta datuek mamitzen dute. Lehena, euskal geografiari eskaini zion eta ezin adierazgarriagoa da haren sarrera: Geografiak garrantzi handia dauka herrialde baten Historia azaltzeko, baina jarrera deterministei uko egin behar zaie, gizakia delako bere historiaren egilea. Are zalantza gutxiago erakutsi zuen egileak Euskal Herriaren mugak finkatzeko; zazpi herrialdeek osatzen zuten, inongo aitortza juridikorik gabeko hiruk Frantzian (Lapurdi, Nafa-rroa Beherea eta Zuberoa), eta lauk Espainian; horietatik hiruk (Arabak, Biz-kaiak eta Gipuzkoak) nolabaiteko eskualdea osatzen zuten «para los aspectos que atañen a sus relaciones con el Poder Central en el ejercicio de la autono-mía económico-administrativa que les corresponde». Nafarroak, aldiz, harre-man berezia zuen Madrilako gobernuarekin. Muga politikoen nondik nora-koak azaltzeko, sarri, historiara eta hizkuntzara (euskararen erabilerara) jo zuen Echegarayk lan honetan. Mendi eta ibai garrantzitsuenak azaldu ondoren, biztanleriaren kokapen-ereduak (baserrietan, herri handietan, herrixketan...) ere zenbatu zituen.

Echegarayren bigarren atalak gai eztabaidatsua jorratu zuen, izenarena ale-gia. Bertako biztanleak euren burua euskalduntzat zuten eta hortik etor omen

litezke Eusko eta Vascon, eta Vascongado eta Vasconia. Hizkuntza bera zen, beti ere, hitz horietan zegoen erroa, eta luze azaldu zuen hitzon bilakaera, baita beste batzuen ere (herrialdeen izen geografikoena zein literarioena), erromatarren garaitik aurrera. Ez zituen begi onez ikusi, aldiz, Sabino Aranaren proposamenak: *euzko*, eta, are gutxiago, *Euzkadi*.

Ez naiz ni nor hirugarren atalaren balorazio kritikoa egiteko, gaia Historiaurrea baita, eta ez naiz ni oso aditua kontu horietan. Echegarayk Barandiaran, Aranzadi eta Eguren lanen ildo jarraitu zuen eta haiek, hain zuzen ere, XIX. mendean Gabriel Mortilletek finkatutako arkeologia-sailkapena erabili zuten garai luze eta informazio eskaseko historiaurrea aztertzeko. Historiaurreko garaia ezaugarritzeko era horrek eragin handia izan zuen Euskal Herriko ikerketetan, Breuil abadearen bitartez; ikuspegi historiko-kulturallean oinarrituta, fosil gidariak (harrizko edo hezurrezko tresnak) erabili ziren denbora-markatzaile gisa. Bigarren Mundu Gerraren amaierara itxaron behar izan zen ezagutzaren paradigma berriak zabaltzen hasteko. Azken proposamen horiek marko kronologikoen eta harria lantzeko tekniken eta horrela sortutako tresnen arteko lotura zurrunik auzitan jarri edota, gutxienez, haien gaineko hausnarketa eskatzen dute. Gaur egun teknika eta objektu desberdinen bizikidetzaren alde egiten dute ikerlariak; horren arabera, lausotu egin dira garaien arteko mugak. Beste alde batetik, indusketak ugaritu ahala, aztarna asko aurkitu dira, eta, gainera, aurrerapen teknikoek zehaztasun handiagoa, kronologikoa, besteak beste, eman diete aurkikuntzei. Echegaray, esan dugun moduan, ez da eztabaida horietan sartzen eta, Barandiaranekin bidelagun, Achelense garaian finkatzen du lehen giza presentzia euskal lurraldean, beti ere ikerketa berrien pentsura. Bat egiten dute, hain zuzen, azken aurkikuntzek baieztapen horrekin, Lezetxikin baitago orain arteko Euskal Herriko hominido baten arrastorik zaharrena. 164.000 urteko hezur bat da eta Achelense amaierakoa edo Musteriense hasierakoa genuke. Zuzen ari ziren, beraz. Animalien hezurrek eta harrizko edota hezurrezko tresnek aukera eman zizkioten denboran aurrera egiteko eta garai bakoitzeko aztarnategi garrantzitsuenen (Hego eta Ipar Euskal Herrikoak) berri emateko. Goi Paleolitikoko arrastoek, tresnek, pinturek eta grabatuek Euskal Herrian zuten oparotasunak giza talde berrien agerpena frogatzen zuten; baina Echegaray Barandiaran baino uzkurrago azaldu zen talde horri «euskal» deitzeko aukeran. Zuhurtasun-eskaerak etengabe azaltzen dira orrialdeetan zehar eta horrela amaitzen da testua, Eneolitiko aurreko garaia zertzelada batzuekin.

Ugartek, azkenik, Echegarayk idatzitako eta jasotako hainbat eskutitz interesgarri bildu ditu eranskinean; lanaren jatorria eta bilakaera hobeto ulertzeko lagungarri zaizkigunak.

Ehun orrialdeko laginak, eskatutako lanerako Echegarayk idatzi zituen bakarrak ziur aski, idazle jakintsua eta neurrizkoa erakusten digu; berak zekienaren alde egiten zuena eta ez zekiena edota arrazoizkoa iruditzen ez zitzaiona

albo batera uzten zuena. Jarrera hori ez zen ohikoa sarritan, ezta gaur ere hainbat gairen inguruan. Bestalde, hainbat zalantza sorrarazten digu aztergaia lantzeko aukeratu zuen bideak. Helburua izan zitekeen besterik gabeko dibulgazio-lana baztertzea, baina muturrera joanda, beste bidea zen irakurle aditu gutxi batzuegana zuzentzea. Historia (edota Historiaurrea) ezagutu behar da lan hau bere sakontasunean eta konplexutasunean ulertu ahal izateko eta ez dakit hori ote zen garai hartan premiazkoena zena. Agian, urte batzuk lehenago Estornesen lana edo Bernardino de Estellarena argitaratu izanak Echegaray dibulgazioaren bidetik aldentzea ekarri zuen. Nolanahi ere, Ugarteren edizio txukunak ahalegin garrantzitsu hura ezagutzeko aukera eman digu, eta, beste behin erakutsi digu gaur egungo ahaleginek aurrekoen jardunean sustraituta daudela.

Mikel Aizpuru Murua
Historia Garaikideko Katedraduna (EHU)